



2022/2023 denboraldia

23. ZIRKULARRA

GIZONEZKO JUBENILEN 1. MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Jubenilen 1. Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA		GRUPO 2 MULTZOA		GRUPO 3 MULTZOA	
1	BEHOBIA C.D. "B"	1	TRINTXERPE C.D. "B"	1	OSTADAR S.K.T. "B"
2	DUNBOA EGUZKI C.D.	2	BETI ONA C.D. "B"	2	KOSTKAS KE "C"
3	GURE TXOKOA K.K.E. "B"	3	ORERETA KAFAA, F.C.	3	AMARA BERRI K.E. "B"
4	HONDARRIBIA F.E "B"	4	TOURING KE "B"	4	MARTUTENE K.E. "B"
5	LANDETXA K.T. "A"	5	ANTIGUA LUBERRI K.E. "A"	5	MUNDAIZ S.C.D.
6	OIARTZUN K.E. "C"	6	VASCONIA C.D. "C"	6	ARRUPE CHAMINADE C.D. "C"
7	SAN MARCIAL C.D. "C"	7	IGELTEGI DE DONOSTIA C.F.	7	DANENA K.E. "C"
8	TOURING KE "C"			8	URNIETA K.E. "B"
GRUPO 4 MULTZOA		GRUPO 5 MULTZOA		GRUPO 6 MULTZOA	
1	SANTO TOMAS LIZEOA "B"	1	ORDIZIA "B"	1	IKASBERRI K.E. "A"
2	KOSTKAS KE "D"	2	INTXURRE K.K.E.	2	IKASBERRI K.E. "B"
3	AMARA BERRI K.E. "A"	3	LAZKAO K.E. "B"	3	LAGUN ONAK C.D. "B"
4	ANTIGUA LUBERRI K.E. "B"	4	EUSKALDUNA S.D. "B"	4	ORIOKO F.T. "B"
5	ARRUPE CHAMINADE C.D. "D"	5	BILLABONA K.E. "B"	5	ZARAUZ K.E. "C"
6	HERNANI C.D. "C"	6	DANENA K.E. "B"	6	USURBIL F.T. "A"
7	USURBIL F.T. "B"	7	OSTADAR S.K.T. "C"	7	TEXAS LASARTEARRA C.F.
8	SPORTING DE HERRERA				

**GRUPO 7 MULTZOA**

- 1 BERGARA K.E. "C"
- 2 EIBARTARRAK F.T.
- 3 ANTZUOLA K.E.
- 4 UROLA K.E. "B"
- 5 ARETXABALETA K.E. UDA "C"
- 6 MONDRAGON C.F. "B"
- 7 MONDRAGON C.F. "C"

2.LEHIAKETA SISTEMA

Erregionalen 1. Mailako liga txapelketa **52 taldek** osatzen dute, 8 taldeko hiru multzotan eta 7 taldeko lau multzotan banatuta. Bi fasetan jokatu da: puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A.Igoera Fasea:

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek ($2 \times 7 = 14$), gehi hirugarren bi onenek (lortutako puntuen eta jokatuako partiden arteko ratio onena) (guztira 16 talde), zortzi taldeko bi multzotan banatuta, itzuli bikoitzera (14 jardunaldi), fase horretan parte hartuko dute.

Maiatzaren 28an, multzo bakoitzeko lehenak Kategoriako txapelduna zehazteko finala jokatu du, partida bakarrera eta zelai neutralean.

Maiatzaren 28an eta ekainaren 4an, zozketa egin ondoren, bi partidatarara igotzeko kanporaketak jokatu dira, elkarren aurka (3.-3.), eta horrela, beharrezkoa izanez gero.

Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak ($2 \times 2 = 4$) igoko dira Jubenilen Gorengo Mailara, baldin eta goragoko kategoriako beste batekin mendekotasun- edo filialtasun-harremanik ez badute.

Euskal Ligako jaitsieren eta igoera fasean mendekotasuna izan dezaketen taldeen arabera, talde bat edo bi gehiago igo daitezke.

Bi multzotan edo gehiagotan eratzen diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak **sailkapen postu bera** lortu duten taldeen artean jokatu dira. Hau da, **lehenak, bigarrenak, hirugarrenak** eta horrela, hurrenez hurren, **beste multzoko sailkapen postu bera duten taldeen aurka** jokatu lukete.



«Koltxoi» kategoriari buruz indarrean dagoen akordioa errepikatzen da, kategoria horretan sortzen diren behin-behineko plazak txandaka eta hurrenkera honetan betetzeko:

- A) Jubenilen 1. Mailako igoera lehenetsiz.
- B) Jubenilen Gorengo Mailatik jaitsi direnen artean, ondoen sailkatuta zegoen taldearen jaitsiera saihestuta.
- C) Eta horrela hurrenez hurren.

B. Gipuzkoako Kopa

Gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.



6. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2022ko iraila

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General